

Euskara, ukitzeko eta entzuteko

Ikusmen urritasuna dutenek 350 liburu eskura ditzakete euskaraz irakurtzeko, braille sisteman zein soinu formatuan. ONCEk bi urte daramatza moldaketa lanetan.

MAITE ASENSIO

Bilbo

Zentzumen bat falta denean, gainerakoak zorroztu ohi dira. Ikusmena falta dutenek, begien ordez, eskuak eta belarriak baliatzen dituzte irakurtzeko. Duela gutxi hasi dira euskaraz ere irakurtzen. Izan ere, Eusko Jaurilaritza Araba, Bizkai eta Gipuzkoako haur itsuen derrigorrezko hezkuntza kudeatzeaz eta horretarako materialez hornitzeaz arduratzen da. Hortik aurrera, ONCEra jo behar dute unibertsitate ikasketak egiten dituzten itsuek edo ikusmen urritasuna dutenek. Nafarroan, aldiz, ONCEk du hezkuntzaren arloko ardura guztia.

Hego Euskal Herrian 4.200 itsu inguru dira ONCEko kide. Horien artean zenbat euskaldun dauden jakitea zaila da, baina batzuek euskarazko produktuak eskatu izan dituzte. Egun, itsuentzat edo ikusmen urritasuna duten pertsonentzat dauden produktu eta teknologien artean, literatura da euskaraz eskura daitekeen apurrenetakoa. «Etorriko dira gehiago», dio Inma Arrietak, euskarazko liburuaren ONCEko kudeatzailea. Esate baterako, *Jaws* ordenagailuetarako irakurketa programaren euskarazko bertsioa.

Itsuek edo ikusmen urritasuna



Braille sisteman ukimenaren bidez irakurtzen dute itsuek. MARISOL RAMIREZ / ARCAZKI PRESS

duten pertsonak bi modu dituzte liburuak euskaraz irakurtzeko. Alde batetik, braille sistemara moldatutako liburuak daude; argitale-txe batzuekin dituzten akordioei esker, Word formatuan jasotzen dituzte liburuon testuak, eta programa baten bidez braille sisteman jartzen dute. Testuak argitaletxetatik jasotzen ez badituzte, libu-

ruak orriz orri eskaneatu behar dituzte.

Braille sistema ukimena baliatuta irakurtzen dute itsuek, baina ez da oso jardura hedatua. Arrietak berak onartzen du ez duela erraztasunik. «Braille liburuak oso handiak dira, eta erosotasunez irakurri behar dira. Gainera, braillea helduak izanik ikasi dugun



Daisy makina, CDak irakurtzeko erabilia. MARISOL RAMIREZ / ARCAZKI PRESS

2002an, Atxagaren 'Obabakoak' gaztelaniaz eta katalanez braille sisteman zegoen, baina ez euskaraz

Literaturaz gain, Elhuyar hiztegi elektronikoa egokituko du itsuentzat ONCE elkarteak

itsu askok ez dugu sistema horretan irakurtzeko trebetasunik».

Beraz, braillearekin moldatzen ez direnek liburu hitzuna deiturikoak dituzte, pertsona habekirakurritako grabazioak, alegia. Garai batean kasete analogikoetan grabatzen ziren, zinta bakoitzak lau soinu pista izatea ahalbidetzen zuten programa baten bidez; horre-

ondorioz, diskriminatuta daude itsu euskaldunak. «Euskarak ematen al ditu itsuentzat beste hizkuntzek eman dituzten aukerak? Ez». Euskararen egoera oro har ona ez dela uste du, eta, hartara, arazoak dituztenentzat, okerragoa da. Gainera, badago Agirreri «mingarriagoa» zaion beste auzi bat. «Euskarak dituen arazoetako batzuk gureak dira, eta beste batzuk kanpotik datoz, baina kasu honetan, euskaldun batzuek erabakitzen dute beste batzuk baztertezea. Zeren Kultura Sailako arduradunak euskaldunak dira, eta euskaltzaleak direla esaten dute».

Liburuen banaketa da beste arazoetako bat, Agirreren aburuz. ONCEn baino ez daitezke eskura euskarazko liburuak braille sisteman. «Ez dut planteatzen liburutegi guztietan braille idatzitako liburuaren funts bat egotea, baizik eta edozein liburutegitan liburu bat eskatu eta handik egun batzuetara bertan mailegatu ahal izatea».

la, kasete bakoitzak zortzi orduko iraupena zuen. Orain, berriz, digitaletan grabatzen dira liburu gehienak, CD edo MP3 formatuan. Horiek erreproduzitzeko *Daisy* izeneko makina bat dute.

Liburu hitzunen formatua unibertsitateko ikasleen oharrak esku-ratzeko ere erabiltzen dute. Izan ere, Eusko Jaurilaritza Araba, Bizkai eta Gipuzkoako haur itsuen derrigorrezko hezkuntza kudeatzeaz eta horretarako materialez hornitzeaz arduratzen da. Hortik aurrera, ONCEra jo behar dute unibertsitate ikasketak egiten dituzten itsuek edo ikusmen urritasuna dutenek. Nafarroan, aldiz, ONCEk du hezkuntzaren arloko ardura guztia.

Liburuez gain, itsuentzat Elhuyar hiztegi elektronikoa moldatzeko programa garatuko du ONCEk. Euskaraz ikasten edo lan egiten duten itsuentzat tresna «erabilgarria eta beharrezkoa» izango dela uste du Arrietak. Izan ere, web orri gehienak ere ez daukate eskura, euren formatuek ez baitute irakurketa programak erabiltzeko aukerarik ematen.

ASPALDIKO ESKAERA. Ibilbide luzea jorratu behar izan dute itsuek edo ikusmen urritasuna dutenek braille sisteman edo liburu hitzunen bidez euskaraz irakurri ahal izateko. Euskal Herriko hizkuntz eskubideen egoerari buruz Behatokiak 2002an egindako txostenak adierazi zuenez, Bernardo Atxagaren *Obabakoak* eleberria braille sisteman zegoen gaztelaniaz eta katalanez; ez, ordea, euskaraz, hau da, liburuaren jatorrizko hizkuntza. Izan ere, Eusko Jaurilaritza Hizkuntz Politikarako Sailburuordeak euskara enpresetan sustatzeko programaren barruan sartu zuen ONCE 2000. urtetik, baina duela bi urte hasi ziren euskarazko liburuak itsuentzat egokitzen, hitzarmenaren ondorioz.

Are zailagoa da Ipar Euskal Herriko itsu euskaldunen egoera. Euskarak berez duen ikusezintasunari gehitu behar zaio brailleratutako euskal liburu bat bera ere ez egotea bertan. Euskara hizkuntza ofiziala ez den testuinguruan, erakunde publikoek ez dute euskararekiko ardurarik hartu, eta are gutxiago itsuei euskaraz irakurtzea errazteko. Haize Berri kultur elkarteak ONCEren euskarazko liburuak izan ditu, eta alde biek agertu dute elkarlanean aritzeko borondatea, baina ez da arduradunekin «egiazko eztabaidarik egon», Maixan Merkapide Haize Berriko kideak azaldu duenez. Hala ere, 40 liburu inguru dituzte grabatuta, eta egunero liburu irakurketak egiten dituzte euskal irratietan. «Ez da berezik itsueintzako ekitz bat, baina haienentzat ere interesgarria izango da».

«Itsuentzat euskarak ez ditu ematen beste hizkuntzek ematen dituzten aukerak»

Euskarazko liburuak braille sisteman sistematikoki jartzeko eskatzen du Manu Agirre itsu euskaldunak

M. A.

Bilbo

«Joxe Azurmendi neronek irakurri ahal izateagatik pozik nago, baina ez nuke nahiko poz horrek ez dagoena ekzutatzea». Braille liburu handi bat esku artean duela topatu dugu Manu Agirre, Bilboko Concha kaleko ONCEren kabinan. Aspaldi hasi zen itsuek euskaraz irakurtzeko dituzten mugak salatzen, eta euren eskubideak aldarrikatzen. Duela bi urte, hamahiru

eguneko gose greba egin zuen Durangoko Euskal Liburu eta Disko-en Azokan. Egun, 200 liburu baino gehiago ditu euskaraz braille sisteman bidez irakurtzeko, baina oraindik ere gabezia handiak hautematen ditu. «Ezer ez dagoenean zerbait sortzea pauso bat da, baina ez da nahikoa. Mantsu joatea gauza bat da, baina norabide bat egon behar du, eta guk ez dakigu nora goazen, ezta etorkizunean zer gertatuko den ere».

Euskal erakundeei dagokie, Agirreren iritziz, euskarazko liburuak braille sistemara egokitzea, edota liburu hitzuna grabatzea, «eta ez euskaratik oso urrun dagoen erakunde pribatu bati». Baina ez dago horretaz arduratu den instituzio publikorik, eta, Agirreren esane-



Manu Agirre. MARISOL RAMIREZ / ARCAZKI PRESS

tan, «ez dago plangintzarik, ezta irizpide zehatzik ere. Euskarazko liburuak ez dira sistematikoki braillera moldatzen. Nork erabakitzen du zein liburu brailleratu?».